

# noaua

**Sagardo Eguna 2016  
gehigarri berezia**

**Herri-galdeketa  
debekatua izan da**

**Zumarte Musika  
Eskolan matrikulatzeko  
epea astelehenean  
irekiko da**



**Minbizia gainditu berri dute biek  
eta erraustegiaren egitasmoarekin kezkatu daude:**

**“Arrisku portzentaia txikiena  
ere ez dugu onartzen”**





## JATETXEA

- EGUNEKO MENUA • ASTEBURUKO MENUA
- MENU EXEKUTIBOA • KARTA
- EKITALDIAK (EZKONTZAK, BATAIOAK..)
- ITSASKI ETA ARRAINETAN BEREZITASUNA
- MARISKADAK •PAK BEREZIAK (GASTRONOMIA + TALASO + GAUA)



Hondartza bidea 1, Orio 943 89 44 40 [orio@aisiahoteles.com](mailto:orio@aisiahoteles.com)

## Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



## Albisteak iruditan

# Udala eta gizarte ongizateko eragileen arteko hitzarmena, diru-laguntzen harira

**O**tsailean zehar, herriko eragileek kultur, kirol, gizarte ongizate, ingurumen eta nekazaritza zein abeltzaintza eremuetan egitasmoak gauzatzeko udal diru-laguntzak eskatzeko aukera izan zuten. Eskabideek udal barruan bere tramitazio bidea osatu ondoren, diru-laguntzok banatzeko garaia da orain. Gizarte ongizatekoak jasotzeko hitzarmena sinatu berri du Usurbilgo Udalak, onuradunak izango diren herriko eragileekin.

Ondoko irudian, Xabier Arregi Usurbilgo alkatea eta Jone Urdanpilleta gizarte ongizateko zinegotzia, diru-laguntzak jasoko dituzten eragileetako ordezkariekin batera, hitzarmena izenpetzeko duela aste-bete Potxoenean egindako ekitaldian. Ezkerretik eskuinera, Usurbilen Nahi Di-



Usurbilen Nahi Ditugu, Usurbilgo Odol Emaileen Elkarte eta DYako ordezkari bana, Xabier Arregi alkatearekin eta Jone Urdanpilleta zinegotziarekin batera.

tugu, Usurbilgo Odol Emaileen Elkarte eta DYako ordezkari bana.

Bataz beste, hiru eragileok eskaturiko

laguntzaren ia ehuneko ehuna jaso dute (%94,98), Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez.

## Laburrean

### Sagardoaren Ibilbide Turistikoaren aurkezpena

Sagastiak Loretan zikloaren baitan iragarria dator: Euskal Herriko Sagardoaren Ibilbide Turistikoaren aurkezpen ekitaldia. Ostegun honetan egingo da aurkezpena, maiatzak 19, goizeko 11:00etan Potxoenean.

### Ipuin kontalariaren saioa Bihurri Txiki ludotekan

Ixabel Agirresaroberen saioa ostegun honetan izango da, maiatzak 19, arratsaldeko 17:30ean.

■ Bihurri Txiki Ludotekan.

■ Nori zuzendua: 4-6 urte bitartekoei.

■ Sarrera: doan.

### Zubietako Txokoetako matrikulazioa

Apirilaren 30a baino lehen aurrez izen eman zutenek, ostiral honetan dute matrikulatzeko azken eguna. Matrikula orria bete eta kuota ordaindu behar da. Izen emateko idatzi zubietatxoko@gmail.com helbidera.

# noqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil  
943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus  
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

**Elkarteko lehendakaria:**  
Idoia Torregarai.  
**Aldizkariako koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Idazkaria:** Aizpea Aizpurua.  
**Publizitatea:** Beatriz Alda,  
publizitatea@noaua.eus  
**Diseinu berria:** Erroitz S. L.

**Erredakzio kontseilua,**  
**erredakzioa@noaua.eus:**  
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.  
**Banaketa:** Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.  
**Laguntzaileak:** Lontxo Zubiria,  
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,  
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,  
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.  
**Tirada:** 2.800 ale.  
**Lege-Gordailua:** SS-668-96  
**ISSN:** 1136-6818.

**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

### HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Imanol Ubeda

## Bi “ero” haiei

**D**uela bi aste izan zen. Jexux Artze Kultur Elkartearen eskutik, eta enegarrenez, kultur ziklo majo batez gozatzeko aukera izan genuen. Tartean, *Heroiak* antzezlan zetorren egitarauan. Hiru aktore puska oholtza gainean. Hiru beterranoen azalean, gerran aritutako soldaduentzako zahar-egoitza batean daude, bizitzaren joanari so. Gerald Sibleyrasen obra hau Txalok egokitu du euskarara eta herriz herri dabilta asteotan.

Egunotan, udal liburutegian Elena Ferranteren *Adiskide paregabea* (Igela) eskuratu dezakezue. Lila eta Lenù Napoliko auzo pobre bateko umetako adiskideak dira. Bigarren Mundu Gerraren ondoko Italian, adiskidetasun estu eta bitxia sortuko da bi neska hauen artean, oso nortasun desberdina badute ere. Igela argitaletxeak ekarria du euskarara.

“Orain arte irakurritakoarekin

nora iritsi nahi ote du? Zer adierazi nahi ote du mutil honek?”, pentsatzen hasiak izango zarete.

Ez dut ezer berezirik kontatu. Ados. Bi egokitzapen ekarri ditut gogora. Baina aipa nezakeen Jon Abriale duela hiru aste Sutegin aurkeztu zuen “Neskatoak” dokumentala edota ostiral honetan Sutegin eskainiko duten “Sagardoa bidegile” ikus-entzunezkoa. Eta balioko luke.

Akaso hobeto ulertuko duzue adierazi nahi dudana, instant batez 50 urte atzera egingo bagenu.

1966ko udaberrian gaude. Diktadura baten morrontzan. Adierazi beharra ere bada kultura. Asko zegoen adierazteko garai horretan. Pentsa. Eta diktadurak horregatik dira hain hertsia kultur espresio askeekin. Beraz, folklore kutsuko ekitaldiez haratago, nekez antolatu daiteke bestelakorik. Ez bada erregimenaren meneko zerbait, eta erregimenaren hizkuntzan, noski.

Bi gazte tematu dabilta baina.

Euskal dantzak eta bertsolarien saioak ondo daude, baina bestelakorik ere erretzen ari da 30 urteko gau ilunaren ondoren. Gazteak dabilta antzerkia lantzen. Donostiako Jarrai taldekoak bogan dira. Horiak eta beste batzuk ekarri ditzakegu.

Kantari berriak ere hasi dira agertzen. Horiak ere gustura entzungo genituzke ba herrian.

Eskultoreak eta margolariak antolatzen hasiak dira, eta horiek ere gurera ekarriko bagenu?

Baina nola egingo dugu?

Ausardia ez zen nahikoa. Azkarra ere behar zen izan. Irudimena landu. Eta Udarregi bertsolaria omentzeko aitzakian, eta zailtasunak zailtasun, lehenetariko kultur astea antolatu zuten. Hemen.

Geroztik, ezer ez da lehen bezala izango. Beldurraren paretan zirrikitu bat zabaldu zuten. Eta zirrikitu hura leiho eder batean bilakatu zen ondoren. Eta egun, kultur ekosistema baten isla da. Bai. Ahul ja-

rraitzen dugu izaten. Ados. Baina orain Elena Ferranteren *Adiskide paregabea* edota James Joyceren *Ulises* irakurri ditzakegu euskaraz, Gerald Sibleyrasen *Heroiak* antzezlan ikustera joan...

Egungo gure kultur jardueren ikusgarritasunaz serio eztabaidatu beharko dugu noizbait.

Eta gure kultur jardueren transmisioan diren gabeziak zenbatu, eta horiek gainditzeko kluster bat antolatu akaso. Eta hala ere, *itsasoan urak handi* izaten jarraituko dute. Ados.

Baina hemen eta orain, 1966ko maiatzeko bidegile haiek goraipatu nahi nituzke. Udarregiren omenez kultur jardura horiek antolatu zituzten bi “ero” haiek. Joxan Artze eta Felix Aizpurua. Lehortearen erdian, oasi moduko honetara iristeko bidea zabaldu zuten horiei. Igandean, Udarregi eta Remigio Mendiburu omentzeko ekitaldian, ondo gogoan izango dituztenak.

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Imanol Ubeda

## Sagardo Eguneke jai gunea, autorik gabeko eremua

Igandean, autoentzat itxita egongo da herri erdigunea. Goizeko 08:00etan Bizkarretik Kale Nagusirako sarrera itxiko du Udaltzaingoak. Usurbila autoz datorrena San Inazio sarbidera gerturatu beharko da. Udaltzaingoa egongo da bertan trafikoa bideratzen. San Inazio ondoko industriaguneetan aparkatu ahaliko da. Ezinbestean Kaxkora gerturatu behar duenak, autoz igo ahaliko da San Inazio kaletik gora.

Hainbat kale ere itxita egongo dira; kanposantu zahararren parean, Puntapax, Bordaberri eta Zu-



Festa-ingurune osoa itxita egongo da ibilgailuentzat.

biaurrenea kaleak. Ibilgailuen joan etorrirako itxita egongo dira, baita autobusentzat ere. Donostiara joateko, nahiz hiriburutik Usurbila datozen autobusak, San Inazio errotondan geratuko dira. Eta ez udaletxe ondoko geltokian.

## “Errioa bizi!” plana, bigarren fasean

Usurbilgo Udalak, EHU eta Eusko Jaurilaritzarekin elkarlanean abiatutako egitasmoaren bidez, errioa eta errio inguruak biziberritu nahi dira, beti ere, bertakoen iritzi eta ekarpenak aintzakotzat hartuta. Ekintza plan hau diseinatzeko parte hartze prozesua abiatua du Udalak.

Lehen fasean, Oriarekin nola baitaiteko lotura duten eragile eta norbanakoekin elkarriketa erronda bat egin da. Orain, herritar ororen txanda dator. Oria ibaiaren paisaiarako ekintza plana diseina-



Udalak prestatu duen inkesta bat betetzeko aukera izango da laster.

tzen lagundu dezakezue, zuen iritzia emanda. Horretarako, Udalak prestatutako inkesta bat betetzeko aukera izango duzue.

# Santueneko jubilatuko elkarteko taberna zabalik berriz

Euskal kantu giroan eta bertako produktuekin sukaldaturiko zizka mizka elaboratu askoen bueltan ireki zuten maiatzaren 10ean, Santueneko Gure Elkartea jubilatuko elkarteko taberna. Aro berriari ekin dio jubilatuen bilguneko edaritegiak, Usurbilgo Udalak instalakuntzen erabilpena eta zerbitzua esleitzeko prozedura gauzatu ostean. "Kontratu honen hasierako iraupena 2 urtekoa izango da, hau urtez urte, luzatu ahalko delarik, beste 2 urte gehiagoz, guztira 4 urte bete arte", Udaletik aditzera eman dutenez.

## Artzabal jatetxearen kudeaketa esleitzear

Gure Pakea Elkarteko Artzabal jatetxearen kudeaketari loturiko esleipen prozesua ere azkenetan da.

Maiatzaren 10ean egin zen ezohiko osoko bilkuran, behin behinean izendatu zuten lehiaketara aurkezturiko eskaintza onena. Aho batez, Igor Gorriti usurbildarrak aurkez-



Santueneko egoitzaren garai berria ospatzeko, Kantu Taldekoak aritu ziren kantari.

## ARTZABAL

**Aldaketarik ez bada, maiatzaren 31n esleitu da Artzabal jatetxearen kudeaketa zerbitzua**

turiko eskaintza hobetsi zuen udalbatzak.

Ordutik, 10 eguneko epea zuen,

Udalaren aburuz eskaintza onena aurkeztu duenak "23. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan".

Aldaketarik ez bada, maiatzaren 31n egingo den osoko ohiko bilkuran behin betiko esleitu da Artzabalgo jatetxearen kudeaketa zerbitzua 5 urterako, beste bost urtez 10 urtera arte luzagarria izango dena.

## Apirilean, 319 langabetu Usurbilen

Berriz ere koxka bat gora egin du Usurbilgo langabezia-tasak. Estatuko Enplegu Zerbitzuak eza-gutxera emandako azken datuen arabera, 319 langabetu zenbatu zituzten apirilean Usurbilen. Beste behin, emakumezko langabetu gehiago ditugu (167) gizonezkoak baino (152). Aldiz, emakumezkoak baino (apirilean 156) gizonezko gehiago kontratatzen segitzen dute (apirilean 172).

## Kontratazioak, behera

Langabezia zertxobait igo den moduan, kontratazioak koxka bat behera egin du. Martxoan 334 kontratu erregistratu ziren udalerri honetan, apirilean 328. Ia denak, 315, aldi baterako eta 198 zerbitzuen sektorean.

Buruntzaldean, Usurbilen bezala zertxobait gorantz egin du langabeziak joan den hilean; 4.259tik 4.268ra.

Gipuzkoan aldiz, beherantz; 41.766 langabetu zenbatu zituzten martxoan. 256 lagun gutxiago apirilean, guztira 41.510.

## Ika-mika

# Ikastolaren batzar orokorra: denok Gattunk Udarregi!

Maiatzaren 26an, osteguna, aurtengo Udarregi Ikastolaren Batzar Orokorra egingo dugu. Ikastolaren erabakitze organo gorena da, eta kooperatiba bat denez, bazkide guztiok gonbidatuta gaude bertan parte hartzera.

Tamalez, azken urteotan bazkideek parte hartzeko joerak beherantz egin du. Eta horrek kezkatu egiten gaitu, Batzarrean Ikastolaren

kudeaketaren inguruko berri esanguratsuak eman eta erabaki garrantzitsuak hartzen baitira, besteak beste, abian diren proiektu pedagogikoak, balantze ekonomikoak, ordaindu beharreko kuotak, izan litezkeen inbertsioak, etab.

Jakina da gurasook galtzak betelan dugula: eskolaz kanpoko jarduerak, etxeko lanak, otorduak... Batzar horretara joatea ez dela beharrezkoa ere pentsa liteke. Baina

ez da horrela, bertan denok dugu botoa, iritzia eta proiektu horri batesa emateko aukera.

Aurretik esandako guztia eragatik, ahalegin berezi bat eskatzen dizuegu aurtengo Batzar Orokorrera etortzeko, eta gogoratu, bertaratu ezin baduzue, zuen botoa beste baten esku uztea aukera ona izan daitekeela.

Lehenengo urtean hasitako bideari jarraituz, aurten ere Batzarra

Sutegin burutuko da, eta sutsuki ahaleginduko gara Batzar ordenatu, erakargarri eta parte-hartzaile izaten.

Bukatzeke, berrirori azpimarratu nahi genuke zuek agertzeak zer nolako garrantzia duen, baita adierazi ere gonbita onartzeko eta bertan elkar ikusteko desioa.

**Udarregi Ikastolako Artezkaritza Kontseilua**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: maiatzak 27. Idatzia ekartzeko azken eguna: maiatzak 23.



# Aldaketak berriz ere Lurraldebusen

Usurbil Donostiarekin lotzen duen UK09 Lurraldebus zerbitzua hiriburuko autobus geltoki berriraino heltzen da jada. Larunbatz geroztik, ibilbideko azken geltokia Federico Garcia Lorca kalea 2 zenbakian kokatua du, geltoki berriaren kanpoaldean.

Orain arte, Askatasuna hiribidean amaitzen zuen ibilbidea Lurraldebusen UK09 zerbitzuak, eta toki berean abiatzen zuen Usurbila itzultzeko bidea. Aurrerantzean ordea, "Askatasuna hiribidea 34ko geltokia autobusera igotzekoa bakarrik izango da, Zumaia noranzkoan". Adi, bus geltoki hau ere egun Kontxako hondartza partetik gertuago kokatua baitago.

Geltoki berria ibilbidean txertatzeak, Zumaia Donos-



UK09 autobusa Donostiako geltoki berriraino iristen da orain.

## AUTOBUS ZERBITZUA

**"Askatasuna Hiribidean amaitzen zuen ibilbidea. Orain geltoki berrian. Itzulerakoa ere geltoki berrian hartu behar da"**

tiarekin N-634 errepidetik edo A8 autopistatik barrena lotzen duten UK09, UK10 eta UK11 zerbitzuetako ordutegiei eragin die. Orain arteko ordutegian igaroko da autobusa Usurbildik

Donostiarantz. Ibilbidea luzatuko denez ordea, bost minutu luzatuko da baita helmugara iristeko autobusek beharko duten denbora. Itzultzeko ere gauza bera; orain arte Askatasuna Hiribidetik autobusek Usurbil aldera etortzeko zuten abiatzeko ordu bera izango dute, Urumea ondoko bus geltoki berritik. Ondorioz, gainerako geltokietara autobusa bost minutu beranduago heltzen da aurreko larunbatetik.

## Informazio gehiago:

Lurraldebusen ordutegi berria eta informazio gehiago:

■ 943 415 208 (astelehenetik ostegunera, 08:30-13:30/15:00-17:15// ostiraletan, 08:00-15:00 artean).

■ gfa\_garraio\_idazk@gipuzkoa.eus

■ lurraldebus.eus

## Ekainaren 26ko hauteskundeetarako argibideak

Spainiak Gorteetarako hauteskunde eguna izango du ekainaren 26a. Egun horretan hauteslekuetara joaterik ez duzuenontzat, aldezturik posta bidez bozkatzeko aukera egongo da. Eskaera ekainaren 16a baino lehen bideratu dezakezue Correosen.

Honen harira, bada Usurbilgo Udaletik nabarmendu nahi duten ohar bat. "Posta bulegoan posta bidezko botoa emateko eskaera egiten dutenek, ezin izango dute inolaz ere hauteskunde egunean botoa eman, botoaren bidalketa egin ez dutenek ere ez, nahiz eta eskaera egin izan". Bada Udaletik zabaldu nahi duten bigarren ohar bat, maiatzaren 16a arte jendaurrean ikusgai izan zen hautesle-errolaren ingurukoa.



Posta bidezko botoa ekainaren 16a baino lehen bideratu behar da.

## POSTA BIDEZKO BOTOA

**"Posta bulegoan posta bidezko botoa emateko eskaera egiten dutenek, ezin izango dute inolaz ere hauteskunde egunean botoa eman, botoaren bidalketa egin ez dutenek ere ez, nahiz eta eskaera egin izan"**

"Hautesle-errola martxoaren 1ean itxi zen, beraz, Usurbilgo hautesle-errola data horretara arte Usurbilen erroldatuta zeudenek osatuko dute. Martxoaren 1az geroztik Usurbilen erroldatutakoek ezin izango dute Usurbilen bozkatu, baizik eta momentu horretan erroldatuta zeuden herrian bozkatu beharko dute", ohar-tarazi dute.

## UEMAk 25 urte

Usurbilgo Udala kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak 25 urte bete berri ditu. Mende laurden honetako ibilbidea errepasatu zuten, erakundea sortzeko 19 udalerrri euskaldunek egin zuten leku berean, Aizarnazabalen. Aurten, Leitzaan ospatuko da UEMA eguna, maiatzaren 28an. UEMAk batzar nagusia egingo du bertan, 25. urtemugako ekitaldi berezia ospatuko da, flash moba, haur ikuskizunak, kontzertuak edota bazkari herrikoia ere iragarri dituzte. Bi hitzorduon artean, asteburu honetan erakundeak argitaraturiko aldizkaria jasoko duzue etxean, Udalaren eskutik. Informazio gehiagorako: uema.eus

## Negozioa hobetzeko aukera, doako tailerrean

Euskal Ganberek eta Eusko Jaurlaritzak merkatariei zuzendutako 45 tailer antolatu dituzte maiatza eta ekaina parterako, Euskal Merkataritzaren 18. Topaketaren baitan. Sektorea profesionalizatzea helburu izango duten tailerretako bat Usurbilen egingo da, maiatzaren 31n, 14:30-16:30 artean, Potoxoen; "Berrestreinatuzure denda! Irabazi gehiago, negozioaz gozatuz" izeneko. Gipuzkoako Bazkondeak bideratuko duen tailerrean, "oso modu ikusgarri eta praktikoan, saltokietan hobetzeko alderdiak irakatsiko ditugu; erakusleioa, espazioaren antolaketa, produktuen aurkezpena, irudia, mostradorea, finantza kudeaketa... berehala aplikatu daitezkeenak". Doako saio honetan izen emateko eta informazio gehiagorako: camaragipuzkoa.com

# Jaietako deialdietan parte hartzeko azken egunak

## Jai Batzordearen bilera

Maiatzaren 25ean 18:00etarako finkatu du Jai Batzordeak datozen herriko festak prestatzeko bilera irekia, eragile nahiz norbanakoentzat.

## Txupinazoa nork bota

Bestalde, azken asteotan Jai Batzordeak martxan jarritako bi parte hartze prozesu azken txanpan dira. Ostiral honetan itxiko dute, txupinazoa jaurtizko hautagaiak proposatzeko epea. Kiroldegian, liburutegian edo Potxoenean dauden kaxetan utzi edo bidali bestela, [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) helbidera.

## Diseinu lehiaketa

Egitarau diseinu txapelketako lanak aurkezteko epea ere ostiral honetan amaituko da. Lehiaketako oinarriak, informazio eta argibide gehiago: [kultura@usurbil.eus](mailto:kultura@usurbil.eus) edo 943 371 999.

## Bertsopaper lehiaketa

16 urtetik gorako usurbildarrek parte har dezakete. 8-10 bertso idatzi eta izengoitiz aurkeztu gutunazal batean, ekainaren 8a baino lehen, Usurbilgo Udala (40. Bertsopaper Lehiaketa), Joxe Martin Sagardia plaza, Usurbil 20.170 helbidera.



**Kiroldegian, Sutegin edo Potxoenean dauden kaxetan utzi daiteke txupinazorako proposamena.**

ra. Helbide horretara helarazi baita datu pertsonalak, beste gutunazal batean.

## Sorospen ikastaroak DYArengo egoitzan

Bi ikastaro antolatu ditu DYAk. Lehen sorospenen ingurukoa maiatzaren 27an, 16:00-18:00 artean, Munalurra 26ko egoitzan. "Doako hitzaldi hau edonori dago zuzenduta, eta egunerokotasunean aurki daitezkeen larrialdi egoerei aurre nola egin ikasiko da. Jarduera oso parte-hartzailea izango da.

Bertan azaldutako eduki teorikoez gain, bertaratutakoek testigantzek eta parte-hartzaile guztien kontsulta eta iritziekin, mahai-inguru bat egingo da". Doan eman dezakezue ize-na, 943 46 46 22 telefono zenbakian, edo [irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com](mailto:irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com) helbidean.

# Errigoraren kontserba loteak eskuragarri

Maiatzaren 24ra arte bidatera ditzakezue, Errigoraren kanpaina berriko kontserba loteon eskaera, elkartasun ekimen honekin bat egin duen NOAUA! K.E.-ren egoitzan: zainzuriak, potxak, orburuak, barazki-menestra, pikillo piperrak, kremak edo tomate frijitua.

Nafarroa hegoaldean ekointzitatiko produktu bakoitzetik 12 ontziko lotea duzue eskuragarri. Egin eskaera orain, eta loteok jasotzean ordaindu. Erriberako tokiko produktuak, eta bertako euskalgintza sustatzea helburu duen kanpaina honen bidez,



**Eskaerak NOAUAn egin behar dira. Produktuak jasotzean pagatu beharko da.**

oraingoan, bertan parte hartzen duten 15 ekoizleen euskalduntzean jarri nahi du arreta Errigora ekimenak. Produktuen

etiketak euskalduntzeko urratsa eman ondoren, ekoizleen webguneak euskalduntzen dabiltza.

## Sorospen lanak uretan

Bideotatik matrikulatu zaitzekete baita, ekainaren 4tik 26ra antolatu duten ur sorospenen inguruko ikastarorako ere. "Uretan aurki ditzakegun arrisku egoerei nola erantzun ikasiko da. Ikastaro amaierako frogak gairatzen dituenak, DY Gipuzkoak eskaintzen duen Uretako Sorosle Titulua eskuratzeko aukera izango du". Saioak goiz eta arratsalde izango dira; 09:00-13:00 artean eta 15:00-19:00 artean. Talde mugatua izango da. Prezioa: 220 euro.

Ikastaroan parte hartzeko lehen sorospen titulua indarrean izan behar da.

**ANORGA TXIBI S.L**  
**KRISTALDEGIA**  
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza  
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak  
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...  
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

**www.noaua.eus**  
 USURBILGO ATARIA

**INQUIETUD**  
 IANTZI-DENDA  
 Nagusia 49, LASARTE-ORIA

# Ikastola Eguna, aurten larunbatarekin

**E**kaineko lehen igandean ez, larunbatez ospatuko da aurten Udarregi Ikastola Eguna, ekainaren 4an.

Eguneko ekitaldien artean, ikasleen jolasak edota HH-koen ikuskizuna programatu dituzte. Baita herri bazkaria ere frontoian. Aurrez erosi beharko dira otordurako txartelak, ikastolako idazkaritzan. Ikastola Egunaren aurretik ere ekimen bat baino gehiago antolatu dituzte. Lehen hitzordua, maiatzaren 26an; ikastolako bazkideen batzar orokorra 18:00etan Sutegiko auditorioan. Ordu horretarako egin dute lehen deialdia, bigarrena,



**Bazkarirako txartelak Udarregiko idazkaritzan daude salgai.**

18:30erako.

## Txartelen salmenta

Ikastola Eguneko bazkarirako txartelak salgai dituzue jada Udarregi Ikastolako idazkaritzan; maiatzaren 31ra arte.

15 eurotan helduentzat, 8 eurotan ikasleentzat.

Bi menu prestatuko dituzte antolatzaileek: "Alergia edo intolerantziarik izanez gero, txartela erosteko garaian, ikastolako idazkaritzan jakinarazi, menu berezia prestatzeko":

■ Helduentzako menua: paela, txerri solomoa onddo saltsarekin, postrea, kafea eta kopa. Edariak eta ogia. Prezioa: 15 euro.

■ Haurrentzako menua: makarroiak tomatea eta txori-zoarekin, solomoa eta Chips patatak, postrea, edaria eta ogia. Prezioa: 8 euro.

## Aurrematrikulazioa, Oinarrizko Lanbide Heziketan

**2**5 urte bete dituen Oinarrizko Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko aukera izango da, maiatzaren 25etik ekainaren 5era.

DBHko ikasketetatik Lanbide Heziketara igaro nahi duten 15-17 urte arteko gazteei zuzendua dago Atallun kokaturiko hezkuntza eskaintza. DBH amaitu ez, baina formazio aldaketa bat nahi-behar duten gazteei. Bi eremuetan lan egiteko prestatu daiteke bertan: ile-apainketa eta estetikan edota sukaldaritza eta jatetxe-arloan oinarrizko titulua eskuratzeko aukera dago. Oinarrizko Lanbide Heziketan aritzeko ezinbestekoa izango da DBH 3. maila egina izatea; salbuespen moduan, DBH 2. maila egina izatea eta irakasle taldeak, Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean sartzeko proposamena egin izana guraso edo legezko tutoreei. Bi ikasturteko iraupena du Oina-



**Maiatzaren 25ean zabaldu eta ekainaren 5ean itxiko da matrikulazio-epaia.**

rrizko Lanbide Heziketak. Klaseak, astelehenetik ostiralera izaten dira, 08:30-14:30 artean. Aurrematrikulatu edo argibide gehiagorako: 943 360 465 lhi@usurbil.eus

## Lanbide Heziketan, ekainean

Oinarrizko Lanbide Heziketako aurrematrikulazioa itxi ostean zabalduko dute Lanbide Hezi-

ketako erdi eta goi mailako zikloetan aurrematrikulatzeko epaia. Ekainaren 6tik 17ra.

Erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen dituzte Zubietan: administrazioa, elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, energia eta ura.

## Informazio gehiago:

lhusurbil.eus  
eskola@lhusurbil.eus  
943 364 600

## KzGuneako ikastaroak

Hona hemen iragarri dituzten hurrengo ikastaroak:

-Maiatzak 24, 16:00-18:00 "Youtube: Bideoak ikustea baino gehiago".

-Ekainak 1-14, 09:00-11:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi".

Informazio gehiago: 943 023 684 / kzgunea.eus edo tutor.usurbil@kzgunea.net

## Erlezaintza ikastaroa

Erlezaintzari buruzko ikastaro teoriko-praktikoa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak. Bi saio izango dira, maiatzaren 21ean eta 28an, 11:00-13:30 artean, Alkartasuna Kooperatiban. Julian Urkiola erlezaintzan adituak bideratuko ditu hitzorduak. Ikastaroaren prezioa: 6 euro, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Ikastarorako izena aurrez eman behar da, bideotatik:

Alkartasuna Kooperatiba;  
Atallu industrialdea, 26  
943 361 114  
alkartasuna@usurbil.com

## Datorren astean egingo da bokashi tailerra

Maiatzaren 28ra atzeratu dute saioa: goizeko 11:00etan Usurbilgo Gaztetxean. "Bertan errautsa, ximorra, harri hautsa, hezur hautsa, lurra, orbela... dituen ongarri fermentatu bat egiten ikasiko dugu, gari edo arroz zaiarekin nahastuz fermentatzen den produktua da. Lorezaintzan, gure baratzen eta lurretan erabili ahal izango dugu", berri eman dute antolatzaileek. Ohartarazi dutenez, "baten batek ongarri hau etxera eraman nahi izanez gero jarri harremanetan gurekin", 608 566 683 telefono zenbakian.



# Oriak, iragan bizia

Azken aldian udalerrri hau zeharkatzen duen errioa saneatu eta bizi-berritzeko egitasmo bat baino gehiago mahai gainean dagoen honetan, denboran atzera egin eta Oriari aurrez aurre begiratzeko aukera dugu igandera arte Sutegin, “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketari esker. Urumeak eta Oriak gordetzen dituen hainbat sekretu ezagutu ditzakegu.

Errioa eta errio inguru bizi askoa izan baitugu aurreko mendeetan. “XIX. mendera arteko autopista” izan dugu, Astigarragako Sagardoetxeko Lourdes Odrizola historialariak azaldu digunez. Bizitza eta aberastasun iturri emankorra.

Ibaiko ura elikagai gisa baliatzen zuten gure arbasoek, jarduera ekonomikoetarako baliabidea ere bazen. Inguruko herritarren artean, nahiz atzerriarekin harremantzeko bidea. Eta negozioetarako gune estrategikoa.

Indar handia izan zuten bi sektoreen arteko lotunea izan zen garai batean, gure errioa. Oria sagardo ibaia izan zen XVI-XIX mende artean, eta Usurbil eta Aginaga buelta bereziki, sagardogintzaz gain, ontzigintzan punta puntako eremua.

## Bederatzi kai

Pentsa, 9 portu izatera heldu zen Oria, Lourdes Odrizola,



Lourdes Odrizola, Sagardoetxeko historialaria, Sutegin den erakusketa azaltzen.

## GUNE ESTRATEGIKOA

**“Oria sagardo ibaia izan zen XVI-XIX mende artean, eta Usurbil eta Aginaga buelta bereziki, sagardogintzan eta ontzigintzan punta puntako eremua”**

Sutegin bisitatu dezakezen erakusketa ibiltarian, jada bisita gidatu bat baino gehiago bideratu duen Astigarragako Sagardoetxeko historialariak adierazi digunez. Bai, garai hartan itsasertzean bakarrik ez, lur barreneko ibaiek ere, Oriak eta Urumeak kasu, inguruotako baliabide ekonomikoak sartu eta kanpora garraiatzeko kai propioak zituzten. Urdaia-ga, Mapil, Agina, Asteasuain, Astesauinalde, Errotaberria, Kaparoz, Torrea eta Atxega izenekoak inguruotan. “Azpiegitura oso txikiak ziren, materiala eta jendea itsasontzira sartu eta

irteteko”, berri eman digu garai hartako dokumentazioa batzen aritu den historialariak.

## Herri txiki, erronka handi

Udalerrri honek ezaguna du bere txikitasunean erronka handiei heltzeko duen ausardia. Ez da gaurko kontua. Garai hartan ere, “tamainaz herri txikia izango zen, baina herri oso oso garrantzitsua zen. Jende askoren buruan zegoen Usurbil” dio Lourdesek.

Nortasun propioa zuten komunitate ezberdinak zeuden; Aginaga, Zubieta, herri gunea zen Kalezar... Gatazkak ere bai tartean. Baina une zailen batuta aurre egiten omen zieten. “Bere istiluak izan arren, momentu latzetan elkar lagundu dira. Herriaren kontzeptua izan dute eta defendatu dute”, dio Lourdesek. Eta nola gainera, garai ilunetatik indarberrituta ateratzera.

# Herri ondarearen erakusgarri Sutegin

Lourdes Odrizola historialariak 25 urte daramatza ontzigintzari loturiko iragana iker-tzen. Lanotan hasi eta berehala jabetu zen, biltzen ari zen informazioan “sagardo asko agertzen zela”. Duela 7 urtetik Sagardoetxean dabil ikerketa lanetan, sagardoaren ondarea berreskuratzen baloreen jartzeko, beti ere azterlanetan oi-

narrirituta. Urratsez urrats, “osatzten doa gure sagardogintzaren mapa”. Bere esanetan, “azken urteotan asko egin da itsasogintzan eta sagardogintzan eta oraindik asko dago egiteko. Erakusketa “bitarteko bat da, dugun ondarea baloreen jartzeko”. “Sagardo ibaiak, bizitza iturri” erakusketa ibiltaria zabalik izango duzue Sagardo

Egunera arte Sutegin, ordutegi honetan:

■ Asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara.

■ Larunbatean 12:00etik 13:30era/ 18:00etatik 20:00etara.

■ Igandean 12:00etik 13:30era. Antolatzaileak: Sagardoaren Lurraldea, Usurbil, Hernani eta Astigarragako Udalak, Donostiako Aquarium-a.

## Ontzigile onenak, etxekoak

Duela gutxi bolo-bolo ibili da, Kolonbiako uretan urperaturiko San Jose galeoia. Mapil ontzian eraiki zuen Pedro de Arostegik, Aginagan. Ontzigile gehiago ere ezagutu zituen inguru honek. Ontzigile onak eta sektore honetan inbertitzeko prest zirenak. Ignacio de Soroa adibidez, “onena bere garaian”. Ekintzaile sutsua, diruduna eta zuen aberastasuna Usurbilen inbertitu nahi izan zuena. “Saroe jauregia berak eraiki zuen. Mapil baserriaren inguruan eraiki zuen ontziola pribatu bat, garai horretan ez zirenean ontziola pribatuak”, adierazi digu Sagardoetxeko historialariak.

XVII. mendearen bueltan, krisialdi ekonomiko betean, “urrezko unea da Usurbilentzat. Une honetan Gipuzkoan egiten dira Amerikara doazen itsasontzi gehienak, hortik erdia edo gehiago Aginagan eraikitzen dira”.

XIX. mendean, Mutiozabal sendia dugu. Bere garairako “oso aurreratuak” zirenak, formazioaren aldeko apustua egin zutenak. Hemen baliatzen zuten teknika hobetzeko, kanpora ikastera joan zirenak. Eta hor aitzindaria; Miguel Ignacio Mutiozabal. 1879an Uriberri ontzian lehenengo baporea eraikitzen du. XX. mende hasierarako etorriko zen sektorearen gainbehera, kostako legedi berri baten eraginez. Baina ordura arte bezala, gerora ere, ontzigintzaren gainbeheraren ostean, errioi etekina ateratzen segiko zioten aginagar eta usurbildarrek; “desagertzen da bigarren sektorea eta lehenengoan bihurtu. Munduko onenean bihurtzen dira”, balore handiko angula famatuei esker.

# M29ko giza-kateak 350etik gora atxikimendu jaso ditu

Azken egunotan gorantz egin du nabarmen maiatzaren 29ko giza-katerako konpromiso txartela hartzera bertaratu diren herritarren kopuruak. Gogoratu, gutxienez 400 usurbildar behar direla, udalerrri honi dagokion giza-kate zatia osatzeko. Aurreko asteburuan, 350 lagunek izen emate kopurua gainditu zuten. Ostiral eta larunbat honetan, Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak mahaia jarriko du berriz, Sutegi atarian.

## 9 gune lotuko ditu

Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-kateak Donostiako Onkologikoa eta Aldundia lotuko ditu, maiatzaren 29an. 9 eremutan banatuko da katea, eskualde edota udalerrri. Usurbildar eta zubietarrek 8 eta 9 guneetara gerturatu beharko dute; Londres Hoteletik Gipuzkoa plazarako tartera, goizeko 11:30etarako:



Gutxienez 400 usurbildar behar dira eta dagoeneko 350ek eman dute izena.

- 1-Onkologikoa-Medikuntza Fakultatea (550m): medikuak eta Oarsoaldea.
- 2-Medikuntza fakultatea-Ilunbeko bidegurutzea (600m): Urola Kosta eta Debarrena.
- 3-Ilunbeko bidegurutzea-Anoetako sarrera (750m): Donostia.
- 4-Anoetako sarrera-Eustasio Amilibia kalea eta Madril hiribidearen bidegurutzea (550m): Tolosaldea.
- 5-Eustasio Amilibia kalea eta Madril hiribidearen bidegurutzea-Antso Jakituna hiribidea eta Azpeitia kaleko bidegurutzea (500m): Goierri, Deba-goiena, Andoain eta Urnieta.
- 6-Antso Jakituna hiribidea eta Azpeitia kaleko bidegurutzea-Easo plaza (550m): Hernani.
- 7-Easo plaza-Londres Hotela (550m): Hernani eta Lasarte.
- 8-Londres Hotela-Bulebarreko kioskoa: Astigarraga eta Usurbil.
- 9-Bulebarreko kioskoa-Gipuzkoa plaza (400m): Usurbil eta Zubieta.

# 200.000 esku-orri banatu eta gero, erronka bete dute

Arrakastatsua suertatu da, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak erraustegiak dakartzan kalteez ohartarazteko 200.000 esku-orritik gora banatzeko asteburuan egin duen banaketa. Erraustegiaren aurkako mezua eta maiatzaren 29ko giza-katerako gonbita Gipuzkoa osora zabaltzeko 600 boluntariok baino gehiagok. Esku-orria erraustuez.org atarian ere eskura dezakezue.



Aurreko asteburuan 600 bolondres aritu ziren Gipuzkoan, Erraustegiaren Aurkako Mugimenduaren esku-orriak banatzen.



## Maiatzaren 29ko giza-katean izena emateko aukera Maiatzak 20, ostirala

■ Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea: Usurbilgo Sutegi ondoan. 19.00etatik aurrera. NOAUA!ko egoitzan, bulego orduetan. Noiznahi: erraustuez.org

## Maiatzak 21, larunbata

■ Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea: 12:30tik aurrera, Sutegi ondoan jarriko duten mahaian.

## GuraSOS-en manifestuak 2.189 atxikimendu batu ditu

“Gure seme-alaben osasuna babestu nahi dugu. Sinatu gure manifestua!”, horixe GuraSOS mugimendua azken egunotan egiten ari den deialdia. Erraustegia alboratzea eskatzen duen manifestu honen aldeko atxikimendu bilketa abian dute; 2.189 sinadura batuta zituzten jada aste hasierarako.

## Aldundiara igorri dituzte

Jasotako atxikimendu guztiak gero, Gipuzkoako Ahal-dun Nagusi Markel Olanori helarazteko asmoa du GuraSOS mugimenduak.



2.189 sinadura batu dituzte jada.



# Erraustegia eraikitzeke emandako baimenari, 4.000 errekurtsor

**B**i egun pasatzeko tar-  
tea izan arren soilik,  
Erraustegiaren Aur-  
kako Mugimenduak eginiko  
deialdiak arrakasta itzela izan  
zuen. Jaurlaritzak erraustegia  
eraikitzeke GHK-ri emandako  
baimena baliogabetzea eska-  
tzeke 4.000 errekurtsotik gora  
aurkeztu ziren. Errekurtsoon  
erregistroak Jaurlaritzaren Do-  
nostia Andia kalea kolapsatu  
zuen. “Norbanakoez beraien  
kabuz erregistratuak, gainera,  
zenbatezinak dira. Beste alde-  
tik, 20 bat udalek eta hainbat  
elkartek ere helegite adminis-  
tratiboa sartu dutela jakin izan  
dugu”, adierazi dute Errauste-  
giaren Aurkako Mugimendutik.  
Helegitea aurkeztu dutenen ar-  
tean da Usurbilgo Udala.

## Errekurtsor zenbakitan

Usurbilen 1.067; Zubie-  
tan 327; Lasarte-Orian 575;  
Hernanin 500; Astigarragan  
151; Andoainen 201; Gasteiz-  
eko kanpusean 300; Urnietan  
40; Usandizaga Donostian 25;  
Tolosan 180; Ibarra 25; Ano-  
tan 80; Legazpin 137; Deba  
20; Aiztondon 100; Arrasaten  
160; Eskoriatzan 5; Bergaran  
12 Elgetan; 7; Oñatin 105.



Alkatea, Usurbilen aurkeztu diren errekurtsorak esku artean dituela.

## “Kontrako efektua eragin du”

Zenbakiok argi uzten dute,  
Jaurlaritzak eta Aldundiak  
ezkutatu nahi zuten baimena-  
ren tramitazioa ez dela isilpean  
pasa. “Eusko Jaurlaritzak pasa  
den apirilaren 11n luzatu zuen  
2010eko baimena, proiektuan  
aldaketa nabarmenik ez da-  
goela ebatziz. Aipatu behar da  
Eusko Jaurlaritzak ez zuela bai-  
menaren berri eman, errekur-  
tsoa jartzeko epea inor enteratu  
gabe pasatzeko asmoarekin.  
Zuzen-zuzenean eragindako  
udalei ere ez die abisatu.

Hala ere, azkenean ezin izan  
dute ezkutatu eta sartu diren  
errekurtsor kopurua ikusita,  
Eusko Jaurlaritzaren eta Dipu-  
tazioaren ezkutukeriak kon-  
trako efektua eragin du”, dio  
Erraustegiaren Aurkako Mu-  
gimenduak. Ekimen honetan  
parte hartu dutenak ere zorion-  
du nahi izan dituzte. “Zorion-  
ak egun hauetan errekurtsor  
jartzeko sinadurak biltzen ari-  
tu zareten guztioi eta sinatu  
duzuenoi! Erraustegia geratzeko  
lortuko dugu!”, adierazi dute  
Erraustegiaren Aurkako Mugi-  
mendutik.

# Txirrinka, proiektu txikitzaileen aurka

Asteburu honetan, maiatzaren  
20tik 22ra, proiektu suntsitzai-  
leen (tartean erraustegiaren)  
aurkako Txirrinka bizikleta  
martxa antolatu dute AHT  
Gelditu! Elkarlana eta hain-  
bat eragile sozial, kultural eta  
sindikalek, “Lurra zaindu, ere-  
du soziala eraldatu! AHT eta  
proiektu txikitzaileak (tartean  
erraustegia) borrokatu!” alda-  
rripean. Euskal Herriko pun-  
tu ezberdinetatik lau zutabe

abiatuko dira. Horietako batek,  
larunbat honetan, Usurbil eta  
Zubietan inguruak zeharkatuko  
ditu. Deialdiarekin bat egin  
dute Erraustegiaren Aurkako  
Usurbilgo Taldeak eta Zubietan  
Lantzenek. “Ekimenari babesa  
emateko zuen parte hartzea  
eskatzen da. Bizikleta, kaskoa  
eta nola ez, erraustegiari aurre  
egiteko indarra eramatea bes-  
terik ez da eskatzen. Anima-  
tu!”, luzatu dute gonbita.

## Maiatzak 21, larunbata

- 11:00 Anbulategiko par-  
kingean batzeko deia.
- 11:50 Urbileko gasolinde-  
gi ondoko bidegorria hasten/  
amaitzen den lekuan, usurbil-  
darrok ongietorria Txirrinkari.
- 12:00 Txirrinkari ongietorria  
Zubietako plazan. Flashmob-a.
- 12:30 Lasarte-Orian batuko  
dira Zubietan, eta Lasarte-Orian  
EuskoTrenen errotondan erre-  
leboa pasako zaie.

## Alkatearen gutuna Gipuzkoako udalei

Xabier Arregi Usurbilgo Uda-  
leko alkateak, gutuna bidali  
die Gipuzkoako gainerako  
udalei, eskaera argi batekin,  
“alderdien arteko eztabaida  
eta logiken gainetik, karguak  
ematen digun konplizita-  
teaz, Zubietako erraustegia-  
ren gaia zure herriko udal-  
batzarrera eramatea. Nahi  
nuke itxikeria politikorik  
gabe eta herritarren ongi-  
zatea oinarritzat hartuz, gai  
honi buruzko eztabaida pa-  
rametro etiko eta demokra-  
tikoetan eman dadin. Eta,  
ongi baderitzozu, zure he-  
rriko udalbatzarrak hartzen  
duen erabakiaren berri ema-  
tea ere eskertuko nizuke”.


## “Arazo etiko eta demokratiko baten aurrean gaude”

Zubietan eraiki asmo du-  
ten erraustegiaren harira,  
“arazo etiko eta demokrati-  
ko baten aurrean gaudela”  
uste du alkateak. “Inork ez  
du aldamenen nahi, eta  
halere derrigorrean egin  
beharrekotzat saltzen zai-  
gu”, dio gutunean. Erraus-  
tegiak ekarriko lituzkeen  
osasun kalteez eta kostu  
ekonomikoez ohartarazten  
du. Gipuzkoako gizartea,  
halako azpiegituraren be-  
harrik ez dagoela erakusten  
ari da alkatearen esanetan.  
“Hainbat herritako birzi-  
klatze-tasak Gipuzkoa oso-  
ra estrapolatuz gero, kitto,  
bukatuta legoke eztabaida.  
Garbi dago, beraz, zein den  
bidea”, dio Arregik.

Gutunak bidaltzeko es-  
kaera, EHBilduk apirilaren  
26an eginiko osoko bilkura-  
ren haritik dator. Udalbatzak  
gehiengo osoz onarturiko  
mozio hartan, erraustegi  
proiektua bertan behera uz-  
tea eta alkateari Gipuzkoako  
udaletara gutunak bidaltzea  
galdegiten zitzaien.







**Klik! batean**

## Egur betean

Bi helduleku dituen zerra batekin egiten da trontza jokoa. Lana txukun eta garaiz egiteko, trontzaren alde banatan tira ari direnek ondo koordinatuta joan behar dute. Epaileen begietan balekoak izateko, mozketaren ondorioz lortutako egur puskak osorik atera behar dira. Eta nola ez, joko honetan ere, lasterren ebakitzen duen bikotea da garailea. Bikotea mixtoa den ala ez, ez luke deigarria izan behar.

Argazkia: Ion Markel

# Herri galdeketa, debekatua

ESPAINIAKO GOBERNUAK GALDEKETA EGITEKO AUKERA UKATU DIO USURBILGO UDALARI

**E**rraustegiari buruzko herri galdeketa antolatze-ko baimena eskatu zion Usurbilgo Udalak Espainiako Gobernuari. Usurbildarrei gai honi buruzko iritzia ematea debekatu die Madrilek. Modu honetan, muzin egin die, galdeketa egiteko Erraustegia Erabakia herri plataformak negu partean bildutako 1.085 herri-tarren eskaerei.

Espainiako Gobernuak aurreko ostiraleko Ministroen Kontseiluan hartu zuten erabakia argudiatzeko, “gaiak udal esparrua gaintitzen du” diote. Hauxe, Ogasun eta Administrazio Publikoko Ministerioak, galdeketa buruz dioena:



Erraustegia Erabakia herri plataformak 1.085 sinadura batu zituen. Ministroen Kontseiluaren ustez, “gaiak udal esparrua gaintitzen du”.

## Gobernuaren erantzuna:

“Ministroen Kontseiluak Usurbilgo Udalari hurrengo galdera hau duen udalerriko hiri hondakinak tratatzeko erraustegiari buruzko galdeketa ez baimentzea erabaki du: Usurbilgo hondakinak tratatzeko, erraustea egoki iruditzen al zaizu?”

Udal Erregimeneko Oinarrien lege arautzaileak aitortzen die herritarrei herri galdeketa eskatzen duten eskubidea, baina kasu honetan guztiz betetzen ez diren baldintza batzuk finkatzen

## MINISTROEN KONTSEILUA

**“Hondakinen tratamenduaren eskumena ez dute Gipuzkoako udalerriek zuzenki baliatzen. 2007. urtetik, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa arduratzen da horretaz. Arrazoi honengatik, herri kontsultara eramán nahi den gaiak udal esparrua gaintitzen du”**

dira. Herri galdeketa xedea udal eskumeneko kontua da eta herritarrentzat garrantzitsuak diren gaiak tratatzen ditu, baina ez du udal izaera.

Gipuzkoako Foru Aldundia- ren, Donostiako Udalaren eta zenbait mankomunitateren arteko lankidetzak hitzarmenak herrialdeko hiri hondakinen kudeaketa definitzen du. Usurbil barne hartzen duen San Marko Mankomunitateko estatutuek, euren xedea herrietako zabor eta hondakinen trata-

mendua edota ezabatzea dela zehazten dute.

Beraz, hondakinen tratamendua udal eskumenekoa den arren, egun eskumen hau ez dute baliatzen Gipuzkoako udalerriek zuzenki, 2007. urtetik, herrialdeko mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundia biltzen dituen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa arduratzen da horretaz. Arrazoi honengatik, herri kontsultara eramán nahi den gaiak udal esparrua gaintitzen du”.

## EHBildu, Ahal Dugu, Ezker Anitza eta Equo, bat eginik Donostiako Udaletxean

Erraustegiaren aurkako eta ekonomia zirkularraren eta zero zabor filosofiaren aldeko akordioa izenpetu dute EHBildu, Ahal Dugu, Ezker Anitza eta Equo. Akordioak lau helburu ditu: hondakinak mu-

rriztea; birziklatzea eta berreskuratzea; hondakinei erraustegia ez den bestelako tratamendu bat ematea; eta I+D+I bultzatzea, hondakinen arazoari irtenbide berriak bilatzeko. Hondakinentzat

konponbide integral, eraginkor, malgu, jasangarri eta herritarren osasun eta ingurumenarekiko errespetuzkoa izango dena proposatzen dute. Erraustegia geratzeko aukera guztiak aztertzen ari direla adierazi

zuten, aurreko astean Donostiako Udaletxean egin zuten agerraldian. Hondakinen inguruko diagnosia berriz egitea eskatu zioten Aldundiari, egungoa, “irreal da eta artifizialki puztuta dago” eta.



# “Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak” jardunaldia

Zubietan eraiki asmo duten erraustegiak seme-alabengan izango duen eraginagatik kezkaturiko guraso taldeak, GuraSOS mugimenduak zabalkunde zientifiko eta elkarrizketa sozialerako jardunaldia antolatu du larunbat honetan, maiatzak 21, Hernaniko Orona-Ideo gunean.

Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak aztertuko dituzte. Informazioa jasotzeaz gain, elkarrizketarako eta osasungintzako profesionalen eztabaidarako gunea izango da. Hitzordura, gurasoak, familiak, osasun eta hezkuntza komunitateak bildu nahi dituzte. Medikuek eta zientzialariek parte hartuko dute.

## Maiatzak 21, larunbata

Tokia: Hernaniko Orona-Ideo gunean.

### Ongi etorria:

- 16:00-16:25 Gonbidatuei harriera.
- 16:25 Jendeari atea irekitzea.
- 16:30 Hasiera eta antolatzaileen diosala.

### Osoko batzarrak:

- 16:30-17:30 Erraustegien eraginen gainean argitaratu den informazio zientifikaren azterketa, bereziki puntu hauek azpimarratuz: gai arriskutsuen metaketa eta sakabanaketa ingurunean, hondakin-mota ezberdinek sortzen dituzten gai arriskutsuen identifikazioa eta eraginak, eta kaltetutako biztanleengan sortzen dituzten patologia.
- Hizlaria: Fernando Palacios jauna, Ikerketa Zientifikoen Goi Zentroko zientzialari titularra (CSIC).



Jardunaldiak larunbat honetan arratsalde partean egingo dira, Hernaniko Orona-Ideo gunean.

## GURASO-EN JARDUNALDIA

**“Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak aztertuko dituzte. Informazioa jasotzeaz gain, elkarrizketarako eta osasungintzako profesionalen eztabaidarako gunea izango da. Hitzordura, gurasoak, familiak, osasun eta hezkuntza komunitateak bildu nahi dituzte”**

- 17:30-18:00 Osasun publikoan erraustegiak dituen eraginak. Erraustegia eta Osasuna Taldeko txostenaren eta ekimenen azalpena (GEIS). Hizlaria: (GEISeko kide bat).
- 18:00-18:15 Atsedenaldea kafe-elkarrizketa.

### Saio paraleloak, mahainguruak:

- 18:15-19:00 Ikerketa eta osasun arloko profesionalen foroa.
- Profesionalen arteko elkarrizketa, trukea, eta sakontzea. Fernando Palacios doktorearen eta OEITko partaidetzarekin.

- 18:15-19:00 Hezkuntzako profesionalen foroa.

-Hezkuntza komunitateko partaideak.

-Hezkuntzako sindikatuak.

- 18:15-19:00 Gizarte foroa.

1. Javier Navascués jauna, Rivas Aire Limpio (Madrid) plataformako burua.
2. Valdemingomezko erraustegiagatik minbizia dutenen kideetako bat, salaketa jarri dutenetako bat erraustegiaren arduradunen aurka (izapidetzeko onartua). Clara Perales andrea.
3. Gurasoak, herritarrak.

### Amaierako saioa:

- 19:00-19:15 Osoko batzarretako ondorioen azalpena.

- 19:15-19:30 Antolatzaileen agurra.

### Gune ludikoa:

Haur eta gaztetxoentzat (denbora libreko monitoreak egongo dira).

16:00- 20:00:  
Gallery gela: haurrentzako tailer eta ekitaldi “berdeak”.  
Kanpoaldean: Saskibaloia, futbol eta brilet jolastokiak, herri kirolak, musika, eta abar.

## “Erraustegiak osasunerako dituen arriskuez” Potxoenean Maiatzak 20, ostirala

■ 18:00 Erraustegiak osasunerako dituen arriskuez ohartarazteko jardunaldia Potxoenean: minbizia izan duten Usurbilgo bi lagun lekukotzak. Eremu honetatik erraustegiaren aurka egiten ari diren lanketa aurkeztu eta bertaratu direnen ekarpenak bildu nahi dituzte. Saio irekia interesdun ororentzat, baina bereziki minbizia izan edota dutenei, senideei edota osasun alorreko profesionaleri zuzendua.

## “Valdemingomezeko kasuari buruzko hitzaldia” Lasarten Maiatzak 21, larunbata

■ 11:30 Hitzaldia Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean: Valdemingomezeko (Madril) erraustegiaren aurka, gaixo talde batek aurkeztu eta tramitera onartu duten salaketaren harira, hango bizipenen berri emango dute, salaketa aurkeztu duen lagunetako batek eta taldeko bozeramaileak.

## “Dibulgazio ekitaldia” Orona-Ideon

### Maiatzak 21, larunbata

16:00 GuraSOS mugimenduak antolatutako dibulgazio ekitaldia Hernaniko Orona-Ideon, zientzialari eta medikuekin. Zabalkunde zientifiko eta elkarrizketa sozialerako jardunaldia. Erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioak. Bizipen pertsonalek ere tarte izango dute. Info gehiago:  
Web orrialdea: [gurasos.org](http://gurasos.org)  
[facebook.com/gurasos](https://www.facebook.com/gurasos)  
Twitter: @tgurasos

# Olatz Matxain eta Garbiñe Zaldua: “Arrisku portzentaia txikiena ere ez dugu onartzen”

**A**rrisku portzentai txikiena ere ez dugu onartzen, diote azken aldian mediku, zientzialari edota gurasoek egin duten moduan, erraustegiaren aurkako borrokara batu diren Olatz Matxain eta Garbiñe Zaldua herritarrek. Minbizia gertutik, lehen pertsonan sufritu dute, eta argi diote, “halakorik bizitzea ez diogu inori opa”.

Halako gaixotasunak, berez, bestela ere etortzen direla eta, onartezina iruditzen zaie, Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak (OEIT) azken aldian sarritan aditzera eman duen moduan, Zubietan eraiki asmo duten erraustegiagatik herritar gehiago gaixotu ahal izatea.

## Esperientzia gogorra

Nazioarteko hainbat azterketetako datuetan, lotura ebidente bat baino gehiago aurkitu ditu mediku eta zientzialari talde honek, erraustegia eta gaixotasunen artean. “Hitzaldietan datu oso kezkarriak azaldu dituzte. Hori entzuteak asko ukitu nau, pasa dudana esperientziatik oso gogorra izan baita”, adierazi dio NOAUA!-ri Olatz Matxain usurbildarrak. Erraustegiak dakartzan arrisku berri jasotzen joan ahala, zerbait egiteko beharra sortu zitzaion. Esperientzia bera bizi eta gainditu duen beste herritar batekin, Garbiñe Zalduarekin bildu eta gai honi buruzko lanketari ekitea erabaki dute. Euren kezka helarazi nahi diote, “elkarteei, erakundeei. Bizi eta gainditu dugun gaixotasuna oso larria da eta ez diogu inori halakorik pasatzea opa”.

## Gaixo bakar bat ere ez erraustegiagatik

Beraiek dioten moduan, toka-



Ostiral honetan 18:00etan Potxoenean ekitaldi irekia antolatu dute.

## BIEN ESKAERA

**Olatz Matxain eta Garbiñe Zaldua herritarrek minbizia gertutik, lehen pertsonan sufritu dute, eta argi diote: “halakorik bizitzea ez diogu inori opa”**

tzen denean, gaixotasunok “bestela ere etortzen dira eta gainditu beharrak daude. Gu zorionez hemen gaude, zoritxarrez ez dute denek lortzen”. Horregatik, onartezina irudi-

tzen zaie, mingarria, OEIT eza-gutxera ematen ari den datuak aintzakotzat hartuta, erraustegia eraikitzeke proiektuak oraindik indarrean segitzea. “Askok ukitzen gaituen gaia da. Ez dugu inolaz ere inor gaixotzerik nahi, ezta bakar bat ere erraustegiagatik, mindu egiten baikaitu”, adierazi digute Matxainek eta Zalduak.

Euren kezka helarazteko saiakeran, lehen urratsak eman dituzte. Aspanogi, Kattalin eta Minbiziaren Aurkako Espainiako Elkartearekin hartuema-

netan jarriak dira. “Mezu bana bidali diegu eurekin elkartu nahi dugula adierazteko, elkarre bezala zeresana dutela uste baitugu”. Egunotarako deitu diren ekimenetan parte hartzeke gonbita luzatu asmo diete, minbiziaren aurkako eragile hauei. Bestalde, hedabideetarako hainbat artikulu prestatzen ari dira.

## “GuraSOS lan handia egiten ari da”

Hunkituta hartu du Matxainek, GuraSOS mugimenduaren sorrera. Maiatzaren 7ko aurkezpen ekitaldian egon zen eta dioenez, “pertsonalki hunkitu egin nintzen, bai familiak agertu zirenean, bai bideoa ikustean. Neure ekarpena egiteko asmoa dut. Lan handia egiten ari dira”.

Taldearen manifestuak izan duen harrera bikaina eta gurasos.org atarian ikus daitekeen erraustegiaren arrisku eremuk maparen garrantzia nabarmendu digu. Gipuzkoako 200 ikastetxe daude besteak beste, eremu honen baitan. “Arrisku handia da hemen jokatzen ari dena”, aipatu digute.

## “Denok batera joan behar dugu”

Ideologia ezberdinetakojendearengana heldu nahi dute, eta batez ere denok osasunaren alde bat egitea eskatzen dute. “Alderdikeriak alboratu eta batzea, gai honekiko sensibilizazioa izatea. Osasunaz ari gara, denok batera joan behar dugu”, gogorarazten digute. Hondakinak erraustearen aurrean alternatibak badirenez, zera eskatzen dute, “topa dezatela behar duten sistema.

Baina hemen ez gaude esperimentuetarako”.

Egiten ari diren lanketa osoa ostiral honetan, 18:00etan Potxoenean deitu duten hitzorduan aurkeztuko dute. Ekitaldi irekia izango den arren, bereziki, minbizia izan edota dutenei, haien senide eta lagunei, edota osasun munduko profesionalei zuzendua egongo da hitzordua.

Larunbatean Lasarten, Val-

demingomezeko (Madril) erraustegiaren aurka salaketa aurkeztu zuten gaixo taldeko kide batek bere lekukotza eskaintzeko hitzaldia antolatu dute. Gogoan izan, minbizia duten 36 lagunek azpiegitura horren aurka salaketa aurkeztu zutela eta Madrilgo 49. Epaitegiak tramitera onartu duela. Haietatik “15 lagun hil dira zoritxarrez”, aipatu digute usurbildarrek.



# Zumarte Musika Eskolan matrikulatzeko garaia

**Z**umarte Musika Eskolan matrikulatzeko epea datorren astelehenean zabalduko da. Izena ematearekin batera, ordainketa egitea derri gorrezkoa da matrikula osatu ahal izateko. Familia ugarieneztat hobariak egongo dira.

## 1. Zumarten behar duzen informazioa jaso

Maiatzaren 23an ireki eta 27an amaituko da matrikulazio epea. Zumarte Musika Eskolan bertan. Goizez (egunero, astelehena izan ezik), 10:30etik 12:30era. Arratsalde (egunero) 16:30etik 19:30era.

## 2. Ordainketa, Kutxabanken

Kutxan ordainketa egin behar da, ondoko kontu zenbakian: 2095 5069 08 1062820021 (Kutxabank).

Ordainketa egiterakoan, ikaslearen izena ipini kontzeptu gisa, eta ordainagiria jaso. Kontuan izan Kutxan ordainketak egiteko ordutegia hau dela: goi-



Maiatzaren 23an zabaldu eta maiatzaren 27an amaituko da matrikulazio epea.

zez, 8:30etik 10:30ak bitarte.  
- Musika Txokoa (4-5-6-7 urte): 125 euro.  
-Musika Mintzaira: 125 euro.  
-Instrumentua: 125 euro.  
(Panderoa: 70).  
-Abesbatza edo Talde Instrumentala bakarrik: 50 euro.

**3. Ordainagiria Zumarten entregatu, eta inpresioak sinatu**  
Ordainagiria, zuen kontu korronteko zenbakia (20 digitu-ekin) eta argazki bat (ikasle berriak bakarrik) Zumarten entregatu eta inpresioak sinatu.  
Horrez gain, instrumentuko

ikasleak hileroko 28 euroko kuota ordaindu beharko dute.  
Hobariak badira familia ugarietan eta hiru senide zuzen edo gehiagoren kasuan.

## Oharrak:

-Aurten ere helduen taldea osatu nahi lukete, "beraz gurasoak ere animatu zaitezte musika ikastera".  
-Instrumentua ikasten hasten diren artean, tronboia, saxofoia, tronpeta edo biolina ikasten hasten direnei, nahi izanez gero Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko die.

## 2016-2017 ikasturteko matrikulazioa

■ Egunak: Maiatzak 23- 27 bitarte.  
■ Zumarte Musika Eskolan, Kale Nagusia, 45.  
■ Matrikulazio-ordutegia:  
- Goizez (egunero, astelehena ezik): 10:30-12:30tara.  
-Arratsalde (egunero): 16:30tatik 19:30tara.  
■ Gutxieneko adina: 4 urte.  
■ Informazioa: 943 371 594. Kale Nagusia, 45.  
[www.zumarte.org](http://www.zumarte.org)  
■ Ikasgaiak: Musika-Txokoa, musika mintzaira, helduentzako musika mintzaira, tronpeta, tronboia, saxofoia, biolina, biola, biolontxelo, perkusioa, klarineta, abesbatza, teknika bokala, eskusoinua, trikitixa, panderoa, pianoa, txistua, gitarra, flauta, organoa, talde instrumentalak.  
■ Ikasturte hasiera: irailak 5 astelehena.

## 2016-2017 Musika Txokoa eta musika mintzairako ordutegia

MUSIKA TXOKOAKO TALDEAK	MUSIKA TXOKOA ORDUTEGIA	
Musika Txokoa 1.1 (4 urte)	Asteartea 16:45 - 17:45	
Musika Txokoa 1.2 (5 urte)	Osteguna 16:45 - 17:45	
Musika Txokoa 1.3 (6 urte)	Asteartea -osteguna 17:45-18:30	
Musika Txokoa 1.4 (7 urte)	Asteartea -osteguna 18:30-19:15	
MUSIKA MINTZAIRAKO TALDEAK	MUSIKA MINTZAIRA	KANTU-KANTARI
Musika mintzaira 2.1 maila	Astelehena - asteazkena 16:40-17:40	Asteazkena 17:40-18:20 (Zumarten)
Musika mintzaira 2.2 maila	Astelehena - asteazkena 17:40-18:40	Asteazkena 16:50-17:40 (Zumarten)
Musika mintzaira 2.3 maila	Astelehena - asteazkena 18:40-19:30	
Musika mintzaira 2.4 maila	Astelehena - asteazkena 19:30-20:20	
ABESBATZAKO TALDEAK	ABESBATZAKO ORDUTEGIAK	
ZUMARTE ABESBATZA - 10/12 urte (biak barne) (2006-2005 urte artean jaiotakoak)	Ostirala:16:45-17:30 (Zumarten)	
ZUMARTE ABESBATZA - 13 urte edo gehiago. (2004-edo lehenago jaiotakoak)	Ostirala:16:00-16:45 (Zumarten)	
ZUMARTE GAZTE ABESBATZA	Asteazkena: 19:00-20:00 (Zumarten)	

**Musika txokoa, musika mintzaira eta instrumentuko ikasle berrien kasuan:**

Eskaintako plaza kopurua baino eskaera

gehiago badago, matrikulazioa bukatu eta hurrengo ostegunean arratsaldeko 19:00tan zozketa egingo da. Zozketan sartu ahal izateko matrikula ordainketa

egin eta agiria musika eskolan entregatu beharko da ikaslearen datuekin batera. Zozketaren ondoren itxaron zerrenda egingo da eta bajarik egon

ezkero itxaron zerrendako ikasleak sartuko lirake. Zozketaren ondorioz, plaza gabe geratzen diren ikasleei bakarrik itzuliko zaie matrikula.

# Ostiral honetan, “Sagardoa bidegile” dokumentala Sutegin

Astejoka dugun 35. Sagardoa Egunerako girotzen hasteko, “Sagardoa bidegile” Pixel eta Elhuyarrek, ETBren partaidetzarekin ekoiztutako dokumentala proiektatuko dute ostiral honetan, maiatzak 20, 19:00etan Sutegin.

“Urtean lau hilabetez, urtariletik apirilera, euskal sagardotegiek milaka pertsona erakartzen dituzte, bertakoak zein kanpokoak. Tradizioa bete nahi dute denek: tortilla, bakailaoa, txuleta eta gazta jatea, eta txotxera deitzen duen ahotsa entzundakoan sagardoa edatea. Tradizio modernoa da hau, baina erro sakonak ditu.



Ostiral honetan emango dute dokumentala. Arratsaldeko 19:00etan hasita.

Dokumentalak bidaia moduan azalduko digu tradizio hau: ibilbide geografiko, kultural, teknologiko eta gastronomikoa izango da, ezustekoz beteak, dio sinopsiak. Donostiako Zinemaldian estreinaturi-

ko ikus-entzunezkoa Usurbilator, Sagardoa Egurenaren Lagunak, Usurbilgo Udala eta Elhuyarren eskutik.

Informazio gehiagorako: [sagardoabidegile.eus](http://sagardoabidegile.eus)

## Dantza Taldekoak, Urdiñarben

Herriko Orbeldi Dantza Taldeko kideak Urdiñarben izan dira asteburu honetan. Iaz hasitako bideari jarraituz Xiberoako herri txiki honetan egiten den Musikaren Egunean parte hartu zuten.

Larunbatean dantza desberdinez osatutako emanaldia eskaini zuten adin tarte desberdinetako dantzakideek. Horrez gain, xuberotarrekin batera nahikoa dantza egiteko aukera ere izan dute, igandean jai egun handia izan baitzen Urdiñarben.

Urdiñarbeko (Zuberoa) Bil



Pasa den asteburuan Musikaren Egunean hartu zuten parte.

Xokoa elkarteak antolatutako, musikaririk eta dantzarik ez da falta izaten larunbatez eta igandez. Kulturen arteko

trukea garatzea da jaialdiaren helburu nagusietako bat. Josu Aranberrik helarazi digu kronika eta ondoko irudia.

### “Nordic Walking” edo Ipar Martxa

Bigarreniz Oiarde Kiroldegia antolatuta du saioa, maiatzaren 27rako 17:00-20:00 artean. “Ibiltzeko eta kirola egiteko beste era bat. Bi makilen laguntzaz egiten da, “alfa” izeneko teknika erabiliz, erritmoa du eta gorputzeko hainbat atal lantzen dira”, berri eman dute antolatzaileek. Ikastarorako ize-na, Oiarde Kiroldegian eman beharko da. Prezioa: 15 euro bazkideek, 30 euro bazkide ez direnek. Makilak 5 eurotan alokatuko dira. Argibide gehiagorako: 943 372 498.

### Pagazperen zozketak

Azken asteotan egin dituzten zozketetako bi sarituak:



■ Maiatzak 6: Imanol Uribe izan zen saritua. 2.403 zenbakiaren jabeak, 2 otordu irabazi ditu Aginaga Sagardotegian.

■ Maiatzak 15: Enbilleneko Joxe Mari izan zen saritua. 10.198 zenbakiaren jabeak, 2 afari tokatu zaizkio Saizar Sagardotegian.



Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**ETXETRESNEN KONPONKETAK**  
Moduz, azkar eta prezio onean  
MARKA GUZTIAK  
645417665  
XABIER  
Usurbil

**ALDAMU**  
KONPONKETAK  
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea  
943 372 795

**ANTXETA**  
taberna-jatetxea  
eguneko menuak  
ogitartekoak  
plater konbinatuak  
Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44



## Senior neskak, Zilarrezko Ohorezko Mailan

Lortu dute. Zilarrezko Ohorezko Mailan dira Usurbil K.E.-ko senior neskak. Zorionak! Usurbildarrak txapeldunorde amaitu dute asteburuan Castro Urdialesen jokatu duten igoera fasea. Ikaragarritzko denboraldi bikaina borobildu dute senior neskek, Kantabria aldean. Euskadiko txapeldun ditugu, eta hirugarren urtez jarraian sailkatu dira igoera fasea jokatzeko. Eta oraingoan igotzea lortu ere bai. Ez dute meritua makala. Zorionak!

Taldetik eskerrak helarazi nahi dizkiete zaletuei, "Castro Urdialeseraino joateagatik. Urte osoko lanaren emaitzarekin oso gustura gaude. Eta hurrengo urtean Zilarrezko Ohorezko Mailan jokatzeko irrikitan?". Azken denboraldiotan behin eta berriz aipatu izan



Kantabrian jokatu zen igoera fasean lortu dute txartela.

duten moduan, taldean justu samar dabilta senior neskak. Eskubaloian jokatzera animatzen diete neskei.

### Emaitzak

#### Maiatzak 13, ostirala

Castro-Urdiales 13-22 La Jota  
Usurbil K.E. 30-22 Baztango BKT

#### Maiatzak 14, larunbata

Castro-Urdiales 19-13 Baztan BKT  
Usurbil K.E. 36-18 A.D. La Jota

#### Maiatzak 15, igandea

Castro-Urdiales 20-16 Usurbil K.E.  
A.D. La Jota 16-18 Baztango BKT

### Sailkapena

1-Castro Urdiales: 6.  
2-Usurbil K.E.: 4.  
3-Baztango BKT: 2.  
4- A.D. La Jota: 0.

## Gipuzkoako Txapelketako podiumean



Tximeleta soinketa erritmikoko taldekoak hirugarren izan ziren Gipuzkoako Txapelketan.

Bai taldeko senior eta jubeniletan, baita bakarka ere, Verónica García.

## Zubieta, garaile etxean



Euskal Herriko Errebote Txapelketa jokoa du nagusien mailan lehian dabilen Zubieta taldeak. Igandean etxean izandako neurketa, 13-4 irabazi zieten Endaiarrak taldekoei.

## Maiatzaren 27an

### Agirretxe Taldearen

### 5. urtemuga festa

Taldea sortu zeneko bosgarren urteurrena ospatzera doaz, ekitaldiok:

#### Maiatzak 27, ostirala

■ 19:00 Herri poteoa Aitzagatik abiatuta.

■ 21:30 Afaria Saizarren. Txartelak salgai aurrez, Aitzaga eta Irrati tabernetan. Antolatzailea: Agirretxe Taldea.

### Herri Artekoan

### hurrengo aurkaria

### Lazkao izango da

Pagazpe pilota elkarteak Bidegoian taldearen aurkako kanporaketa irabazi zuen. Orain, Herri Arteko Pilota Txapelketan Lazkao izango da aurkaria.

■ Maiatzak 20 ostirala, Lazkaoko kiroldegian. 19:00etatik aurrera.

## Eskubaloia partidak

### Oiardo Kiroldegian Maiatzak 21, larunbata

■ 09:00 Alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5B-Udarregi 5C  
10:00 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B-Bidasoa B  
11:10 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketako finala: Elgoibar-Tropaia Taberna Pulpo K.E.  
12:20 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketako finala: Canterias Dominguez Pulpo-Bidasoa Irun A  
13:30 Infantil neskak, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi B-Ereintza B  
16:00 Kadete neskak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E. "B"-Aiala B ZKE  
17:30 Jubenil neskak, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E.-Elgoibar

### Maiatzak 22, igandea

■ 09:15 Alebin neskak, Gipuzkoako Erredimendu Txapelketa: Usurbil K.E.-Ereintza  
■ 10:15 Infantil mutilak, Gipuzkoako Selektzioa: prestakuntza saioa. Usurbil K.E.-ko Udarregi A taldeko Julen Lejardi eta Udarregi B taldeko Eneko Furundarena deitu dituzte hitzordura.  
■ 11:30 Kadete mutilak, Selektzioa: prestakuntza saioa.



## Ekainaren 12an, Lizarrusti-Larraitz irteera

Aralarko Ganbo mendira igo eta Txindokiren albotik Larraitzera joateko 19 kilometroko irteera antolatu du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak ekainaren 12rako. Ekainaren 8a baino lehen eman behar da izena. 10 euroko ordainketa egin beharko da, bi kontu zenbakiotako batean. Gogoan izan, plaza mugatuak izango dira:  
Rural Kutxa: 30080259163005430321  
Kutxabank: 20955069071068489805  
Informazio gehiagorako: andatzamendizale.info

## Futbol partidak

### Maiatzak 21, larunbata

■ 09:15 Alebin neskak: Udarregi 6A-Langile A  
■ 10:30 Alebin neskak: Udarregi 5-Udarregi 6A  
■ 11:30 Neska F-8 finala.

## ETXEBIZITZA

## Salgai

BOE-ko 79m<sup>2</sup> etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela handi, 2 komun, saloi handia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. TI: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m<sup>2</sup>. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiaigan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m<sup>2</sup>. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela,

## OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitxi dugu; orain, 36 milioi pezetatan.

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

## Alokairuan

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariekin eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta

merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

## MOTORRA

## Salmenta,

## garaieak

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarte batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Moto-rra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

## LANPOSTUAK

## Lan eskaintzak

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajauregia.com

Estetizista bat behar da ilea-painidegi batean lan egiteko. 943361971

## LANPOSTUAK

## Lan eskaerak

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen eta garbiketa lanetan. Paperekin eta esperientziarekin. Tel. 617 888 854.

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsu bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketara. Esperientzia eta erre-

ferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-emazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluarekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekue-tan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)



**Zorionak Naiara!**

Gure etxeko

Txinatarrak 5

urte beteko ditu maiatzaren 20an. Ondo ospatu zure eguna eta txokolatezko muxu asko asko, Aizpea, lera eta familia osoaren partez.



**Zorionak Eire!**

Maiatzaren 18an 5 urte beteko dituzu.

Zorionak eta muxu handi bat etxekoaren partez!



**Zorionak Peru!**

Maiatzaren 18an 9 urte egin dituzulako muxuak etxekoaren partez eta ostiraleko merendolan ondo-ondo pasa!

## Heriotzak

**Mari Karmen Iraola Seguro**

78 urterekin hil zen maiatzaren 12an Usurbilen





Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jabetxearen batean harraskako garbiketak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari-tzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldian, garbiketetan. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638

602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plan-txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona helduak ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbi-

keta egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-rekin 68826968.

#### BESTELAKOAK

Katuak oparitzen ditugu Donostikat elkarte. 633 273 747 / 605 730 115

Nort Face markako eta urdin turkesa koloreko haur forro polar bat galdu da. Aurkitu baduzu deitu 678 084 020.

Quechua markako eta kolore arroseko anorak bat galdu da. 678 084 020.

Okly markako eguzkitako be-taurreko graduatu eta beltzak galdu ditut, Aginagako Mapil-en dagoen bankuaren ondoan. Aurkitu badituzu deitu 649 403 890

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztailako bigarren hamabostaldian, uztailaren 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxico-si-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

Mahaspildegia elkartearen plaza bat salgai. Tel. 608 772 013.

NOAUA!ren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUA!tik pasa. Dominan Dipu-

tacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparituko nuke. Baserri edo pabeloia zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikrokro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalejarren, azpiko kaleko gara-jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailean jaioa. Norbait aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Egurraekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kiloa. 657 714 355

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure mas-kota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Orubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

#### TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehe-netik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

## Telefono interesgarriak

Udala.....943 371 951  
Atez ateko bulegoa.....900 776 776  
Udaltzaingoa.....943 361 112  
Udal zerbitzuak (Brigada).....943 370 148  
Sexu Aholkularitza Gunea.....697 919 516  
Gizarte Zerbitzuak.....943 377 110  
Diputazioa - Basetxea.....943 361 215  
Bake Epaitegia.....943 372 336  
Udarregi Ikastola.....943 361 216  
Haur Eskola.....943 374 061  
Zubietako Lanbide Eskola.....943 364 600  
Zubietako Herri Batzarra.....943 372 077  
Hastapen tailerrak.....943 360 465  
KZgunea.....943 023 684  
Oiaro Kirolegia.....943 372 498  
Sutegi Udal Liburutegia.....943 360 692  
Zumarte Musika Eskola.....943 371 594  
Etumeta AEK euskaltegia.....607 609 379  
Kalezar Eguneako Zentroa.....943 365 249  
Gure Pakea Zahar Egoitza.....943 368 770  
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....943 371 751  
Arrate Zahar Egoitza.....943 366 340  
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....943 361 239  
Noaual Kultur Elkartea.....943 360 321

Abere-Landare Babeslea.....943 376 650  
Taxia (Angel).....607 928 770  
Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....677 373 466  
Eusko Tren.....943 470 976  
LurraldeBus.....943 000 117  
Korreos - posta zerbitzua.....943 362 894  
Anbulategia.....943 362 013  
Amenabar botika (lehen Oa).....943 376 076  
Iturralde botika.....943 363 395  
DYA.....943 464 622  
Gurutze Gorria.....943 272 222  
Emergentziak.....112  
Genero-indarkeria, arreta ..900 840 111 / 016  
Gonzalez Ehorztetxea.....943 362 163  
Gipuzkoa Donostia Kutxa.....943 361 202  
Euskadiko Kutxa-Laborala .....943 364 740  
Banco Guipuzcoano.....943 370 006  
Banco Popular Español.....943 370 411  
BBVA.....943 377 155  
Caja Rural Kutxa.....943 368 842  
Argindarra - Iberdrola.....901 202 020  
Gas naturala - Naturgas.....902 123 456  
Telefonika.....1004  
Euskaltel.....900 840 840

## Goardiako farmaziak

**Osteguna 19** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Ostirala 20** LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

**Larunbata 21** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Igandea 22** DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

**Astelehena 23** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Asteartea 24** URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

**Asteazkena 25** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

## Maiatzak 19 - maiatzak 29

**Osteguna 26** GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

**Ostirala 27** ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

**Larunbata 28** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

**Igandea 29** ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

\* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

**GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**  
URRUTIA YURREBASO, MAITANE  
Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani  
943 55 77 38 22:00 - 09:00

**Gainontzeko datak** [www.cofgipuzkoa.com](http://www.cofgipuzkoa.com) web orrian ikusgai.

# Agenda maiatza

## 20 ostirala

- **Hitzaldia:** erraustegiak osasunerako dakartzan kalteak 18:00etan Potxoenean.
- **"Sagardo ibaiak, bizitza iturri"** erakusketak Sutegin. 18:00-20:00.
- **"Sagardoa bidegile"** dokumentala Sute-  
gin. 19:00.

## 21 larunbata

- **Erlezaintza ikastaroa** 11:00etan Alkarta-  
suna Kooperatiban.
- **Hitzaldia:** erraustegiak osasunerako dakartzan kalteak 16:00etan Oronan.
- **"Sagardo ibaiak, bizitza iturri"** erakus-  
keta Sutegin. 12:00-13:30 / 18:00-20:00.

## 22 igandea

- **Sagardo Eguna** (ikus gehigarri berezia).
- **Txosna-gunea Mikel Laboa plazan** (ikus gehigarri berezia).
- **"Sagardo ibaiak, bizitza iturri"** erakus-  
keta Sutegin. 12:00-13:30.

## Udaberri Festa Zubietan

2015-16 ikasturtea amaierara begira den honetan, aisialdirako tartea hartuko dute Zubietako Eskola Txikian, bertako guraso elkarteak antolatuen Udaberri Festako ekimenen bueltan. Jai astea dute datorrena:

### Maiatzak 24, asteartea

16:30 Eskolako haurren marrazki erakus-  
keta.

17:30 "Baziren behin, neska abenturaza-  
leak eta mutil ameslariak" ipuin kontake-  
ta saioa, Kantukantoi taldearen eskutik.

### Maiatzak 25, asteazkena

17:00 Eskulanak: txapak, gatza potokak,  
karetak, kafe kapsulekin eskulanak (koi-  
lareak, brotxeak, diademak)...

18:30 Apar festa eta ur globo gerra.

### Maiatzak 26, osteguna

16:30 Merendola.

17:00 Puzgarriak eta trebetasun frogak.

### "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa

Igandera arte, Sutegiko erakusketa-gelan.

- **Ordutegia:** asteazkenetik ostirale-  
ra, 18:00etatik 20:00etara; larunba-  
tean 12:00etik 13:30era eta 18:00eta-  
tik 20:00etara, eta igandean 12:00etik  
13:30era.



Zubietako Eskola Txikikoek ekitaldi asko  
iragarri dituzte datorren asterako.

19:00 Buruhandiak.

### Maiatzak 27, ostirala

17:00 Zubieta antzerki taldeko ikuskizuna.

17:30 Jokoak: aulki joko kooperatiboa,  
altxorraren bila, herri kirolak...

19:00 Afari-merienda eta ondoren disko  
festa.

Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko  
Guraso Elkarteak.

### Maiatzaren 29ko giza katerako izen emateak

Donostiako Onkologikoa eta Gipuzkoako  
Foru Aldundia lotu nahi da giza-kate bidez.

**Sutegin:** Ostiraletan 19:00etan, larunbate-  
tan 12:30ean.

**NOAUAin:** astelehenetik ostiralera, bulego  
ordutegian.

### Datozenak

#### Presoen eskubideen alde

Hitzordu bikoitza euskal preso eta  
iheslarien eta haien senideen eskubi-  
deen aldeko defentsan; Sagardo Egu-  
nez, 13:00ean Mikel Laboa plazako  
txosnagunetik kalejira eta txotx berezia  
iragarri du Usurbilen Nahi Ditugu bil-  
guneak. Eta astebete barru azken os-  
tiraleko elkarretaratzea. Hilaren 27an,  
20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

#### Kantu-jira

Kantuzaleen hitzordua, ohi bezala, hi-  
labeteko azken larunbatean. Maiatzak  
28, 19:00etan Mikel Laboa plazatik.

#### Gregorio Arbeloaren lanak Artzabalen

Hurrengo astetik aurrera, herriko ar-  
tistaren sormen lanak izango dituzue  
ikusgai hilabetez, Gure Pakea Elkarteko  
Artzabal jatetxean.

#### Muxurbil, Sutegin

Maiatzaren 28an, eguerdiko 12:00etan  
Sutegiko auditorioan, Ixabel Agirresa-  
robek eta Hodei Unzuetak zuzenduriko  
taldea eta egiten darabilen lanketa eza-  
gutzeko aukera proposa. Azken aldian  
prestatzen aritu diren antzezlanak eskai-  
niko dute.

**URPI** Leihokak  
urpileihokak@gmail.com  
943 50 80 95 • 688 81 93 33  
nagusia 10 (atze) USURBIL

**lnaki Iturgintza**  
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •  
ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITZAGARRIAK  
info@lnakiiturgintza.com • www.lnakiiturgintza.com  
**600 024 825**

**ELORZA**  
O BRAK ETA  
ER REFORMAK S. L.  
**661 804 688**  
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com



# GERTU USURBIL TXARTELA



## GERTU, usurbildarren txartela

Oiardo kiroldegia, Sutegi liburutegia, Potxoenea kultur etxea, gure herriko dendak..., zerbitzu guztiak txartel bakarrean

Txartela eskuratzeko, bete ezazu eskaera orria eta entregatu NANaren kopia batekin batera ondorengo lekuetan:

KIROLDEGIA, LIBURUTEGIA, UDALETXEA, HURBILAGOKO DENDAK edo RURAL KUTXAKO BULEGOA

Txartel berriarekin, **% 10 arterainoko deskontuak** ekainean Hurbilagoko dendetan eta eskaera egin duten lehen 1000 herritarrentzat  
**Hurbilagoren opari eder bat**

Auzo eta herri bertako zerbitzuak erabiliz,  
*eman bizia zure herriari!*



Usurbilgo Udala



Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkartea



badabil



# URDAIRA

**Sagardotegia**

astelehenak itxita

**Aginaga 943 37 26 91**



**OTSUA-ENEA**  
SAGARDOTEGIA

**943 55 68 94**

Osinaga bailara, HERNANI



**LARRE-GAIN**  
DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 1era  
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa  
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



☎ **943 36 12 29**

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak  
Petritza bidea z/g. 20170 Zubietta **USURBIL**  
[www.iruinsagardotegia.com](http://www.iruinsagardotegia.com) | [www.astazaransagardoak.com](http://www.astazaransagardoak.com)



**ELUTXETA**  
SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ **943 55 69 81**



**SAIZAR**

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39  
**USURBIL**  
Sagardotegiko erreserbak:

**943 37 39 95**

(Igande gaua eta astelehen  
eguerdia itxita)

[www.sidrassaizar.com](http://www.sidrassaizar.com)

SAGARDOTEGIA  
**aginaga**

Hotela \*\*

URTE OSOAN  
ETXEKO SAGARDOA  
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN  
GELDITZEKO AUKERA!  
ASTELEHENETAN ITXITA

**943 36 67 10**

Aginaga, USURBIL [www.aginagasagardotegia.com](http://www.aginagasagardotegia.com)



Txotxetik sagardoa  
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea

